



## MARKETIN DIGITALERAKO TRESNAK (45 h.)

**Ikastaroa egiteko egunak:** Oraindik zehazteko dago

**Ikastaroa egiteko tokia:** Portugaleten

### HELBURUA

Prestakuntza egin ondoren, gazteek kanal digitalaren funtzionamendua ezagutuko dute merkataritza- eta komunikazio-tresna gisa baita profesionalak erabiltzen dituzten zenbait tresna ere. Laburbilduz, Internetek nola funtzionatzen duen urlertuko dute eta enpresak nola baliatu dezaketen sarea.

Beraz, erakundeetan existitzen ez diren ezagupenak emango dizkiote enpresari, marketin digitala gure enpresen artean nahiko berria den arren, merkatuaren joera garbia baita.

### EDUKIAK

**1. Marketin digitalerako sarrera:** • Helburuak: kanal digitalaren ezaugarriak eta proiektuari ikuspegi egokia ematearen garrantzia ulertzea.

Edukiak:

- Lineaz kanpoko marketina vs marketin digitala.
- Marketin digitalaren berezitasunak lineaz kanpoko marketinari dagokionez.
- Kontsumitzaile digitala (B2B eta B2C).

**2. Bilatzaileak:** kokapen organikoa (SEO) eta ordaindutako kokapena (SEM):

Helburuak: bilatzaile nagusiaren funtzionamendua (Google) ezagutzea eta ordaindu ala ordaindu gabeko orrialdeak indexatzeko eta kokatzeko erabiltzen dituen irizpideak ezagutzea.

Edukiak:

- Bilatzaileen hastapena: zer diren eta nola funtzionatzen duten.
- Googlek webgune bat kokatzerakoan erabiltzen dituen irizpide nagusiak (ordaindu gabe).
- Orrialde bat kokatzean (ordainduta) Googlek erabiltzen dituen irizpide nagusiak.
- Emaizak neurtzea.

**3. Artikuluak, blogak, berriak argitaratzeko edukia:**

Helburuak: proiektu digitalen posizionamendua, ikusgarritasuna, birala izatea eta hedapenean laguntzen duten edukiak sortzeko kontzeptu beharrezkoak ezagutzea.

Edukiak:

- Zergatik den garrantzitsua edukia Interneten.
- Interneten eduki interesgarri eta bakarra (ez bikoiztua) sortzeko oinarriko printzipioak.
  - Eduki hori birala izateko eta zabaltzeko plataformak.



Ayuntamiento de **Portugalete**  
**Portugaleteko Udala**  
Edificio la Canilla, 1ª y 2ª Planta  
Tel.: 94 472 93 06  
Fax: 94 472 93 27  
[behargintza@portugalete.org](mailto:behargintza@portugalete.org)  
[www.portugalete.org](http://www.portugalete.org)



#### **4. Google Analytics.** Ekintza digitalen neurketa:

Helburuak: Google Analytics-en funtzionaltasun nagusiak ezagutzea, tresna digitaletan erabiltzaileen jardueraren datu erreala plataforma digitaletan (webguneak, blogak eta abar) erakustea helburu duen tresna.

Edukiak:

- Google Analytics eta haren funtzionaltasunak (erosketa-analisia, edukien kontsulta, trafiko iturriak).
- Nola konfiguratu Google Analytics.
- Nola atera datuak Google Analytics-etik erabakiak hartzera bideratutako txostenak egiteko.

#### **5. Sare sozialak:**

Helburuak: maila profesionaleko sare sozial nagusiak zeintzuk diren jakitea eta horietako bakoitzaren erabilgarritasun espezifikoa.

Edukiak:

- LinkedIn, zer den eta zertarako erabiltzen den.
- Twitter, zer den eta zertarako erabiltzen den.
- Facebook, zer den eta zertarako erabiltzen den.
- Instagram, zer den eta zertarako erabiltzen den.

### **PLAZA KOPURUA: 15**

### **HARTZAILEAK:**

Langabeak eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden pertsonak edo enpleguaren hobekuntza-egoeran daudenak, **Portugaleten erroldatuta** (lehentasunez) eta **gehienez 30 urte** dituztenak.